

# Ondorioak



Azken txostena prestatu ahal izateko ikasleen arteko foroa egin zen ikastetxe bakoitzean landutakoa ezagutzera emateko eta eztabaidatzeko

Herriaren Diagnostika egin ondoren, Tolosako Udaltzarrera eraman genituen ikasleen foroan adostutako emaitzak eta ondorio nagusiak. Hauexek dira.

- Orain urte dezente, hemengo jende askok migratu egin behar izan zuen, gehienek lan egitera edo bilatzera (artzain, pilotari, gerra garaia...) eta, nahiz eta hasieran migratutako herrialdeen ohitura eta kulturara moldatzea kostatu, denborarekin lortu zuten, bertakoek ondo tratatu zituztelako.
- Egun, berriz, justu kontrakoari ari da gertatzen, hau da, kanpotik gero eta jende gehiago etortzen ari zaigu eta gehienak lan bila datoz beren jatorrizko herrialdeetako egoera larria delako.
- Gure gizartearen eta mundu osoan ekitate falta dago garapen desorekatuaren ondorioz: eskaleak daude kalean, eta gehienetan kanpotarrak dira. Gainera, hauen artean gehienak emakumeak dira.
- Munduan jende pobre asko dago eta horren ondorioz, haur asko egoten dira lanean bere familiei laguntzeko.



Laskorain ikastolako ikasleak Tolosako Zerbitzu Sozialerako teknikiarekin informazioa bilduz

- Bidezko merkataritzarekin ekoizleak soldata duina jasotzen du.
- Ez daude horrelako denda asko, baina geroz eta gehiago daude.
- Bidezko merkataritzari buruzko berriak ez duen jendea badago.
- Tolosan bidezko merkataritzan laguntzen duen jendea badago.
- Soldata baxuak ditugu, etxebizitza eta alokairuak, aldiz, garestiak dira.



Samaniegoko ikasgela bateko ikasleak etorkin baten azalpenak entzuten

- Maileguak lortzea zaila da.
- Aurreiritzi asko daude etxeak alokairuan ipintzerakoan: etorkinak, hondatuta gelditutako denbeldurra...
- Etxe huts ugari dago.
- Ez gaude ohituta alokairuan bizitzen.



- Alokairuaren legea zaharkiturik dago.
- Laguntzak lortzeko baldintza gehiegi eskatzen dira.
- Etxeak ez daude egokituak elbarrientzat eta beste edozein ezintasun fisiko zein psikiko dutenentzat.
- Alokairuan jartzen diren etxeak egoera txarrean daude: txikiak, zaharrak, hornidura falta...
- Pisu batean jende asko bizi beharra.



Hirikide Jesuitinako gela bateko ikasleek Ereite elkarteak kide baten azalpenak entzuten

- Bizitza osorako hipoteka asko dago.
- Tolosako aztarna ekologikoaren kalkulua egin dugu eta ikastetxeetan atera zaizkigun baloreak 2'7 eta 3'1 bitartean ditugu, hau da, gure gizartearen bizimodua planeta osoan zabalduko balitz, planeta hau halako hiru beharko genituzke guztion beharrak asetzeko.
- Gure bizi-maila mantentzeko kontsumoa gutxitu egin beharko genuke.
- Baliabide batzuk agortzen ari dira.
- Herrialde aberatsek herrialde pobreez aprobetxatzen gara.
- Gela oro bizipen, interes, motibazio, ahalmen eta gaitasun anitzez osaturiko unibertso kulturala dela onartu behar dugu.

# Proposamenak

## Lehen Hezkuntza

- Diru-laguntzak eman bidezko merkataritzako produktuak merketu ahal izateko.
- Oinarrizko beharretan laguntzea: janaria, jantzia, dirua, etxebizitza, heziketa.
- Bidezko merkataritzarekin lotutako jarduerak bultzatu.
- Sendagileak bidali ez dagoen tokietara, osasuntsu bizi daitezten.
- Janaria, dirua, jostailuak,... herrialde behartsuenekin konpartitu.
- Maisuak bidali ez dagoen tokietara eta eskolak eraiki.
- Jangela soziala jarri.
- Herrialde pobreak garatzeko proiektuetan parte hartu eta GKEak (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) lagundu.
- Etorkinak gu bezala tratatu
- Etorkinentzat behin-behineko etxebizitza ipini.
- Etorkinei euskara ikasten lagundu.
- Gaizkileak direnak estuki begiratu.
- Etorkinei zerbitzuak eskaintzen dizkieten beste elkartei zabaltzeko aukera eman (ABEGI adibidez) edota diruz lagundu.
- Diru-laguntzak eman: beherapenak...

## DBH eta Batxilergoa

- Gure aztarna ekologikoa altuegia da eta baliabideak agortu baino lehenago udal gastua murrizteko honako neurriak proposatzen ditugu:
- Gabonetan argi gutxiago jarri eta beranduago piztu, kontsumo baxuko bonbillak erabili.
- Zerkausian berogailua gutxiagotan jarri eta lonazko, plastikozko itxurak ipini.
- Bidegorriak ondo mantendu guk erabili ahal izateko, adibidez Laskorainen dagoen hesia kenduz (kontsumoa eta CO<sub>2</sub>aren ekoizpena murrizteko neurri bat).
- Ur kontsumoa murrizten lagundu.
- Beharrezkoak diren obrak bakarrik egin.
- Alokairuaren legea berritza alokairu soziala bultzatuz.
- Pobreentzat aterpeak, jangelak... jarri eta janari bankuak sortu.
- Lanpostu gehiago sortu.
- Etxebizitzan eta alokairuen prezioa jaitsi eta soldata igo, babes ofizialeko etxe gehiago eraiki.
- Beharrezko artikulua merkeago saldu, instituzioen artean hitz eginez.
- Borondatezko laguntzaren gaia landu, kontzientziazio kanpainak bultzatuz.
- Atzeritarren eskubide-berdintasuna bermatu.
- Diru-laguntzak lortzeko baldintzak murriztu.
- Beharra daukatenei diru-laguntzak eman: zergak gutxituz edo kenduz, oinarrizko errentak handituz, lana eskainiz...
- Hutsik dauden etxeen erabilera sustatu.

# Konpromisoak

## Lehen Hezkuntza

- Behar ez ditugun gauzak ez ditugu erosi.
- Etorkinei kasu egin eta arrotz bezala ez begiratu: eskolan integratzen lagunduko diegu, arauak erakutsiko dizkiegu, gure eguneroko planetan kontuan hartuko ditugu...
- Bakoitza den bezala onartuko dugu eta kanpoko itxuragatik edota izaeragatik ez dugu baztertuko. Elkar errespetatu beharra zabaldu.
- Etorkinei euskara ikasten lagundu eta hemengo ohiturak erakutsi beraienak ezagutzuz: jolasak, jakiak, hizkuntza...
- Merkatu txikiak eta antzeko ekintzak antolatu.
- Bigarren eskuko gauzak kontsumitu.
- Daukaguna denon artean banatu beharko genuke.
- GKEei ahal dugun moduan lagunduko diegu: arropa eman, eskolako materiala bidali, kanpainetan parte hartu...
- Bidezko merkataritzako produktuak erosi ditugu denda hauetako abantailak zabalduz.

## DBH eta Batxilergoa

- OROKORREAN:**
- Ikasle guztien berdintasuna bermatu behar duen eskola, hau da, hezkuntzaren kalitatean ekitateak izan behar du ardatz nagusietako bat.
  - Behar bereziko ikasleen integrazioa sustatu.
- ZEHATZAK:**
- Gehiago ibiliko gara oinez edota bizikletaz, ohitzen joateko.
  - Ura eta argia ez dugu alperrik erabiliko.
  - Beharra dutenentzako diren ekintzetan parte hartu: janari bankuak, behar ez duguna emanez, GKEei lagunduz...
  - Gutxiago kontsumitzen ohituko gara.



# Lantegietan



Industria e Inmigrazioa. Lantegietan emakumeen lanen baldintzak hobetu behar dira benetako berdintasuna lortze arren.

Tolosako Lanbide Heziketa Institutuko eta Paper Eskolako ikasleek praktikatan egon diren lantegietan egindako azterketaren ondorioak aurkezten ditugu. Lanak "ekitate eta berdintasuna" izan du ardatz nagusi.

1. Gaur egun, ez dago gizonezkoen eta emakumezkoen lanposturik, lana eta ekintzaren baldintzak kontuan izan eta egokiena aukeratu dezakegu.

2. Une honetan, gizonezkoak bakarrik dauden lantegietan, emakumei atek ireki eta beraien presentzia eta parte hartzea onartu eta bultzatu.

3. Lantegietan, instalazio berriak edo hobekuntzak egiterakoan, kontuan izan gizon eta emakumeentzako baliabideak prestatu behar direla.

4. Orokorrean, emakumearen lana eta bere ekarpenak onartu eta Formazioa duten atzeritarren parte hartzea ere onartu.

5. Jendea aukeratzekoan, lana eta exijentziaren arabera, irizpide eta baldintza ekitatiboak zehaztu eta aukeraketa bidezkoa egin, aurrez sexu edo jatorriatik inor baztertu gabe. Lan exijentzia eta emaitza berari soldata bera dagokio.

6. Formazio aldetik, gizonak eta emakumeak puntu beretik abiatzen dira, baina aurrera egin ahala, emakumei desabantailak pilatzen joaten zaizkie.

7. Zientzia eta negozioen arloetan, generoaren ikuspegitik, orekatutako lan-talde gehienek bere ezagupenak gehiago partekatzen dituzte, berrikuntza gehiago esperimentatzen dute eta automatikoki, askoz ere emankorrak dira. Lan-taldeetan dibertsitatea eta anizkoitasuna bultzatu.

8. Formazio teknikoko ikasketetan, oraindik emakume gutxi dira aukera hau egiten dutenak. Emakumearen presentzia eta parte hartzea bultzatu.

## Eskerrak

Herriko Agenda 21i egiten dizkiogun ekarpen hauek kontuan hartzea eskatzen dizuegu.

Zuen arreta ere eskertu nahi dugu eta espero dugu egin dizkizuegun proposamenei idatziz erantzutea.

Denon artean tolosarrentzat etorkizun bidezkoagoa eta jasangarriagoa lortuko dugulakoan, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Tolosako haur eta gazteak.



# Eskolako Agenda 21

Tolosa 2008/09

## Zer landu dugu?



Azken txostena Tolosako Udalbatzan aurkeztu zen 2009ko maiatzaren 07an.

4. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek bidezko merkataritza zer den ezagutu dute. Herritarrei inkesta bat egin diete, herrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten denden inguruan, baita enpresa alternatibo eta solidarioen inguruan ere.

5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek soldata txikiekin bizitzeko

2008-09 ikasturtean "Ekitate Gabezia" gaia landu dugu Eskolako Agenda 21 programan. Honek hiru ardatz nagusi ditu: eskolako kudeaketaren hobekuntza, curriculumaren azterketa eta komunitatearen partaidetza. Azken atal honetan egin ditugun lanak azaltzen ditugu hurrengo puntuetan:

1. Haur Hezkuntzakoek, power point baten bidez 3 haur desberdinen ohiturak aztertu dituzte eta herrialde desberdinetako muturretako egoeren berri izan dute: oparotasuna, txirotasuna, etab. Umeen Eskubideen irakurketa egin dute.

2. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoek, berriz, aisia eta denbora librean dirua hain ezinbestekoa ez dela jabeazteko, arratsalde bat ahalik eta diru gutxien gastatuz ondo pasatzeko saiakerak egin dute.

3. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek ikasi dute migrazioa animalietan, gizakietan eta gure gizartean oso ohiko jarduerak dela. Inkesta egin diete inguruan edota familian migratzaile gertatutako bati beraren bizipenei buruzko berri izateko.

Gure gizartea etorkinen hartzaile gertatu dela konturazki eta egoera honek dakartzan ondorioak aztertu dituzte. Gure herrian etorkinei laguntzeko dauden elkarte, zerbitzu publikoak, etab. ezagutu dituzte.

moduak, oinarrizko errentak eta %0,7 aztertu dituzte.

Udalari eta eragile sozialei galdetu diete eta herriko proiektuak, zerbitzuak eta elkarteak ezagutu dituzte.

6. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek Ingurumen Biografiak eta Aztarna Ekologikoa aztertu dituzte elkarriketen bidez, Ingurumen Biografiaren web orria kontsultatuz, inkestak eginez eta galdetegiak erantzunez.

## Eskolako Agenda 21, zer da?

Euskadiko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzendutako programa da. Bere xede nagusia hau da: herriko ikasleak, irakasleak eta, orokorrean, eskolako komunitate osoa jasangarritasunerantz bideratzea. Horretarako, gizarte osoak eta hezkuntza-sistemak berak ere ahalegina egin dute bakearen, justizia sozialaren eta jasangarritasunaren ideetara hurbiltzeko. Bide horretan tokiko ekimenak eta Eskolako Agenda 21 baliagarriak izango dira ikastetxeko zein herriko ekimenetan parte hartzeko.

Tolosako kasuan Eskolako Komunitate osoak hartu du parte: ikasleak, protagonista nagusiak izanik, baina baita gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak ere. Denera, 3.885 ikasle izan gara proiektu honetan parte hartu dugunak.



TOLOSAKO UDALA

TOLOSA2015



ingurumena.net  
Gure esku dago  
EURE EN MUESTRA  
I HAZIARTERRO INGURUMEN EGUNA  
DÍA MUNICIPAL DEL MEDIO AMBIENTE

ihobe